



Banco Popular Español, S.A.k jaulkitako finantza tresnak BBVAn gordailutzen dituztenentzako informazioa

BBVak Banco Popular Español, S.A.ren baloreak gordailutu dituzten bere bezeroei jakinarazten die ezen, Banku Berregituraketa Ordenaturako Funttsaren (FROB) Zuzendaritza Batzordeak beharrezko neurriak hartzeko erabakia onartu duela 2017ko ekainaren 7an egindako bileran, **erakunde horri buruzko ebazpenaren xedapena martxan jartzeko, eta akzioak eskualdatuz negozioa saltzea izango dela ebazpenerako tresna.**

Ebazpenaren araua betez, honako hau ezarri da: akzio arrunten titularrek eta 1. mailako eta 2. mailako kapital gehigarriko tresnen titularrek dagozkion galerak xurgatzea, beste ezein ebazpen neurri hartu aurretik (tresna horien xehetasunak 2. orrialdeko koadroan eskuratu ditzakezu).

Horiek horrela, Banco Popular Español, S.A.ren akzioen titularrek, 1. mailako kapital gehigarriko tresnen titularrek eta 2. mailako kapital tresnen titularrek beren gain hartu beharko dituzte erakunde horretan balorazio ekonomiko negatiboaren ondorioz sortu diren galerak, baita erakundea erosteko eskainitako prezioaren ondoriozkoak ere.

Aurreko erabakia gauzatzeko, FROBek neurri hauek hartu ditu:

1. Kapital soziala hutsera murriztu du eta, horrenbestez, burtsan negoziatzeko onartu diren erakunde horren akzio guztien amortizazioa (iraungipena) erabaki du.
2. Akzio bihurtu ditu erakunde horrek jaulkita zituen bonu kontingente bihurtzeko guztiak, eta bigarrenenez murriztu du kapitala hutsera, horrenbestez amortizatzeko erabakia harturik halaber.
3. Akzio bihurtu ditu erakunde horrek jaulkita zituen mendeko bonuak ere.
4. Enkante prozesu lehiakor bidez saldu ditu aipatu berri diren mendeko bonuak bihurtzetik ateratako akzio guztiak, guztira euro batean, eta Banco Santander S.A.k eskuratu ditu.

Jarraian aipatzen diren aktiboetako bat ere ez baduzu, informazio honek du zugar eraginik.

Eraginpean diren Banco Popular Español, S.A.ren finantza tresnen xehetasuna

1. Banco Popular Español, S.A.ren (ISIN ES0113790226) akzioak erabat amortizatuko dira.
2. Bihurtzeko eta ondoren amortizatzeko gaitasuna 1. mailako kapital gehiagarriko tresnei egokituko zaie; hauek dira:

1. MAILAKO KAPITAL GEHIGARRIA

Jaulkitzailea	ISIN
Banco Popular Español S.A.	XS0979444402
Banco Popular Español S.A.	XS1189104356
Popular Capital, S.A.	DE0009190702
Popular Capital, S.A.	DE000A0BDW10
Popular Capital, S.A.	XS0288613119
Pastor Participaciones Preferentes, S.A.U.	X80225590362

3. Azkenik, 2. mailako kapital tresnen zenbateko nominala ere bihurtu behar da, beharrezkoa baita ebazpenaren xedeak lortzeko. Hala, jaulkipen hauei eragingo die ahalmen hori baliatzeak:

2. MAILAKO TRESNAK

Jaulkitzailea	ISIN
Banco Popular Español S.A.	ES0213790001
Banco Popular Español S.A.	ES0213790019
Banco Popular Español S.A.	ES0213790027
BPE Financiaciones, S.A.	XS0550098569

Jaulkitzailea	ISIN
Total Bankshares Corporation	SUBORDINATED DEBT TOTAL BANK 1
Total Bankshares Corporation	SUBORDINATED DEBT TOTAL BANK 2
Total Bankshares Corporation	SUBORDINATED DEBT TOTAL BANK 3
Total Bankshares Corporation	SUBORDINATED DEBT TOTAL BANK 4



Informazio gehiagorako, BBVAk zure eskura jartzen du banku-berkapitalizazioko tresnen inguruko informazioa hemen: <https://www.bbva.es/sistema/meta/info-legal/instrumentos-recapitalizacion.jsp>

ACNMVren webgunean (cnmv.es) ere eskuragarri dagoebazpen prozesuari buruzko dokumentua eta CNMVk eragiketa honi buruz eman duen Informazio-oharra (agiri horien kopia bat eska dezakezu zure BBVA bulegoan).

Eragiketak eta kontsultak egiteko:



900 10 28 01



bbva.es



BBVA App



Zure kutxazaina